

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

Hezkuntza

Gasteizko ikastetxeetako Ikasleen Guraso-Elkarteek (IGE) antolatutako eskolaz kanpoko jardueretarako eta jarduera osagarrietarako Udaleko Hezkuntza-Zerbitzuak ematen dituen laguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2019-2020 ikasturtea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 24an eginiko ohiko bileran, onetsi egin dira Gasteizko ikastetxeetako Ikasleen Guraso-Elkarteek (IGE) antolatutako eskolaz kanpoko jardueretarako eta jarduera osagarrietarako Udaleko Hezkuntza-Zerbitzuak ematen dituen laguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2019-2020 ikasturtea.

Urriaren 1eko 39/2015 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oinarri horiek argitaratzen dira guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 30ean

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko jarduneko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

12. ildo. Hezkuntza. 12. ildoaren oinarri espezifikoak –Gasteizko ikastetxeetako Ikasleen Gurasoen Elkarrekin (IGE) antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak. 2019-2020 ikasturtea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 28an onartu zituen Gasteizko udaleko diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak, 2019. urterako. Oinarri orokor horiek Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, ALHAO) argitaratu ziren, 19. zenbakian, 2019ko otsailaren 13an, zehazki, eta webgunean (vitoria-gasteiz.org/subvenciones) nahiz herritarren arreta-bulegoetan begiratu daitezke. Deialdi espezifiko honetara aurkeztu nahi duten erakundeek bertara etorri beharko dute eskaerak nola eta non aurkeztu behar diren jakiteko, eta erakunde eskatzaileen baldintzak eta betebeharrak, diru-laguntzak justifikatzeko modua, formularioak eta abar ezagutzeko.

1. Diru-laguntzen ildo

12. ildo. Gasteizko ikastetxeetako Ikasleen Gurasoen Elkarrekin (IGE) diru-laguntzak, 2019-2020 ikasturteko eskolaz kanpoko jardueretarako eta jarduera osagarrietarako.

2. Sarrera

Gasteizko hiriak, Hiri Hezitzaile den aldetik, badu asmo osoz gauzatu nahi duen helburu bat: bertan bizi diren pertsona guztien prestakuntza, sustapena eta garapena. Ildo horretatik, hezkuntza inklusiboaren esparruko jardueren bidez, bere egiten du aniztasunari erantzun beharra, hezkuntza inklusiboak pertsona guztiek, aukera-berdintasunez, ekitatez eta bidezkoa

denez, kalitatezko hezkuntza eskura izatea bermatu behar duela ulertuta; mehatxu handienak jasaten dituzten kolektiboek erreparatuko die bereziki hezkuntza horrek, hau da, desorekak eragin ditzaketen egoera gehien pairatzen dituzten kolektiboek.

Diru-laguntzen deialdi hau testuinguru horretan biltzen da, hain zuzen.

3. Deialdiaren xedea

Hauxe da diru-laguntzen deialdi honen xedea: ikasle eta familientzako eskolaz kanpoko jarduerak eta ikasleei zuzendutako jarduera osagarriak antolatzen laguntzea Ikasleen Gurasoen Elkarteak (IGE), 2019-2020 ikasturteari begira, antolakuntza horrek dakartzan gastuen finantzaketan parte hartuz. Ikasleen Gurasoen Elkarteak jarduera sustatuz, gurasoek hezkuntzan eta, bereziki, ikasleen prestakuntza integratzen esku-hartze handiagoa izan dezaten bultzatu nahi da, horrek berak ikasleen eskola-arrakasta bultzatuko baitu.

4. Erakunde onuradunak

Gasteizko ikastetxeetako Ikasleen Gurasoen Elkarteak (aurrerantzean, IGE) izango dira deialdi honen hartzaileak. Haur hezkuntzako bigarren zikloko eta derrigorrezko hezkuntzako mailak eskaintzen dituzten ikastetxeekin lotuta egon behar dute erakunde onuradun horiek.

IGE baten ordezkaria izan daiteke hura kide duen federazioa, ordezkartzaren ahalordeari dagokion ziurtagiria sinatu badute bi aldeek, betiere.

5. Baliabide ekonomikoak

Gehienez ere 126.000,00 euroko kreditua zuzenduko du deialdi honetara Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Sailak (Hezkuntza Zerbitzua), 2019-2020 ikasturteari begira. Honela banatzen da zenbaterako hori:

– 50.400,00 euroko kreditua gehienez, 2019ko irailaren 2tik abenduaren 31ra bitarteko aldirako, 2019rako udal-aurrekontuan Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Sailari dagokion 2319 03 3261 48010 aurrekontu-sailaren kargura.

– 75.600,00 euroko kreditua gehienez, 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 19ra bitarteko aldirako, betiere 2020ko udal-aurrekontuan kreditu egokia eta aski badago.

6. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Gasteizko ikastetxeetako IGEek antolatutako eskolaz kanpoko jardueretarako eta jarduera osagarrietarako emango dira laguntzak, zehazki, 2019ko irailaren 2tik 2020ko ekainaren 19ra bitartean gauzatzen direnetarako.

7. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea eta tokia

7.1. Aurkezteko epea: eskabideak aurkezteko epea oinarri hauen deialdira dagokion testu zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2019ko irailaren 30era arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru-laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

7.2. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko lekua: eskabideak herritarrentzako arreta-bulegoetan aurkez daitezke, bai eta -Gasteizko udalaren egoitza elektronikoan eta legez aurreikusitako gainerako moduetan ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ildotik.

8. Aurkeztu beharreko dokumentuak

Honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

– IGEko presidentek sinatutako diru-laguntzaren eskabidea, Gasteizko Udalak 2019rako emandako diru-laguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorretako ereduaren arabera (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19. zenbakia.); webgune honetan ere eskura daiteke: vitoria-gasteiz.org/subvenciones.

– Eskabide berbera udaleko beste sail edo zerbitzu batzuetako deialdietara aurkeztu ez dela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena (oinarri espezifiko hauekin batera doan 1. eranskina).

– Aurreikusitako eskolaz kanpoko jardueren edota jarduera osagarrien zerrenda. Ikastetxeko Organo Gorenaren onespena izan beharko du jardueren proposamenak, eta 2019-2020 ikasturteko urteko planaren barruan sartuta egon behar du (oinarri espezifiko hauekin batera doan 2. eranskina).

– Aurreikuspenen arabera, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kopurua, ikastetxeko zuzendaritzak ziurtatua, eskolaz kanpoko jardueretan eta jarduera osagarrietan parte hartzeko begirale espezifikoak eskatzen dituztenena, zehazki. Ikasle horiek hezkuntzako laguntzaile espezialistaren arreta izan behar dute ikasgelan (oinarri espezifiko hauekin batera doan 2. eranskina).

– Baldin eta IGEren eskaria eta dokumentazioa hura kide duen federazioak aurkezten baditu, ordezkartzaren ahalordeari dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da (oinarri espezifiko hauekin batera doan 3. eranskina).

Hezkuntza Zerbitzuan diru-laguntza lehen aldiz eskatzen bada, edota datuak aldatu badira, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

– Eskabidea sinatzen duen pertsonak ordezkatzeko ahalordea duela egiaztatzen duen agiria eta pertsona fisikoaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) fotokopia, edota Atzerritarren Identifikazio Zenbakiarena, eskaera egin duen IGEko legezko ordezkariarena, zehazki.

– IGEa Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Orokorrean legez eratuta dagoela egiaztatzen duten agiriak.

– Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

– Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua; agiri horretan, kontu-zenbakia eta kontuaren titularra agertuko dira, kontuan hartuta, betiere, IGEak izan behar duela titularra.

9. Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honen barneko diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandakoekin. Nolanahi ere, diru-laguntzen bidez eta beste diru-iturri batzuetatik lortzen den finantzaketaren zenbatekoak ezin du gainditu, inoiz ere, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa.

10. Diru-laguntza emateko prozedura

Hainbanaketa-erregimenean emango da diru-laguntza.

Eskabideak jaso, baldintzak egiaztatu eta eskabide horiek izapidetzeko onartu ondoren, balioespen-txosten tekniko eta ebazpen-proposamena egingo dira, oinarri espezifiko hauetan zehaztutako irizpideekin bat etorrira.

Xede horretarako, kide anitzeko organo eskuduna eratuko da, eskabideak eta diru-laguntzak emateko proposamena balioesteko. Hezkuntza Zerbitzuko buruak eta Hezkuntza Zerbitzuko Hezkuntza Koordinaziorako Ataleko bi teknikaririk osatuko dute organo hori.

Halaber, Zerbitzuko Administrazio Orokorreko goi-mailako teknikaria izango da instrukzio-organoa, eta hark egingo ditu, ofizioz, diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamenerako kontuan hartuko diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko du diru-laguntzak emango diren, huraxe baita organo eskuduna.

11. Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak

Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa atal honetan aurreikusitako banaketa-sistema aplikatuz zehaztuko da, baina ezin izango du inoiz ere gainditu IGE bakoitzak egindako gastuaren ehuneko 100.

Hauxe izango da banaketa-sistema:

a) Deialdiko kredituaren ehuneko 25 onartutako eskabide guztien artean banatuko da, zati berdinetan.

b) Deialdiko kredituaren ehuneko 55 onartutako eskabideen artean banatuko da, ondorengo atal hauetako bakoitzean IGE bakoitzak lortu duen puntuazio osoaren arabera:

– Dagokion ikastetxean matrikulatutako ikasleen kopuruaren araberako puntuazioa. Horrela, 2018-2019 ikasturtean zenbat haur izan diren matrikulatuta, horrenbeste puntu esleituko zaizkio IGE bakoitzari.

– Bekadun ikasleen kopurua 3 zenbakiaz biderkatuta ateratzen den puntuazioa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mende dauden ikastetxe publikoetako elkarteetan kasuan, aurreko puntuazioa bider 2 egingo da berriro.

Bekadun ikasletzat joko dira 2018-2019 ikasturtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko beka jaso duten ikasleak, 2018ko irailaren 5eko Aginduak, Hezkuntzako sailburuarenak, xedatutakoaren arabera. Eskolaz kanpoko jardueretan eta jarduera osagarrietan parte hartu duten ikasle bekadunak halakotzat hartzeko, beharrezkoa izango da ikastetxeko zuzendaritzak sinadura bidez bermatzea.

– IGEak "Hamaika Esku" esku-hartze planean parte hartzen badu, aurreko puntuazioa bider 2 egingo da berriro ere.

c) Deialdiko kredituaren ehuneko 20 hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko langile espezifikoa kontratatzeak eragindako gastuak diruz laguntzera zuzenduko da. Gehienez ere, 700,00 euroko modulua ezarri da eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduera osagarrietan parte hartzen duen haur bakoitzeko. Ikasgelan hezkuntzako laguntzaile espezialistaren arreta duten hezkuntza-premia berezidun ikasleentzat langile espezifikorik behar den aztertuko da.

Deialdi honen esparruan, IGE bakoitzari 5.000,00 euro eman ahal izango zaizkio gehienez ere.

IGE bakoitzari emango zaion diru-laguntzaren zenbateko osoa a), b) eta c) atalak batuta zehaztuko da.

Baldin eta c) atal honetara zuzendutako kreditua agortzen ez bada, sobera gelditzen den kreditua a) atalera zuzendutako kreditua handitzeko erabiliko da.

Diru-laguntzen deialdi honetarako dagoen kredituaren banaketa horrela egingo da:

– Atal honetan deskribatutako a), b) eta c) irizpideak ezarriko dira. Irizpide horiek ezarri ostean elkarteren batek 5.000,00 euroko diru-laguntza gaindituko balu, eman daitekeen gehieneko diru-laguntza jasoko du, hau da, 5.000,00 euro.

– Elkarte horiek eta dagozkien diru-laguntzen zenbatekoa kontuan hartu ostean, aipatutako irizpideak ezarriko dira berriz ere, geratu den funtsari dagokionez, lehen kalkuluan gehieneko diru-kopuru hori lortu ez duten gainerako elkarteetan artean.

– Eta horrela egingo da beharrezkoa den guztietan, banaketarako irizpide berak eta kalkulu-prozesu hori bera erabiliz.

12. Ebazteko eta jakinarazteko epea

2019rako Gasteizko Udaleko diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera. Oinarri orokor horiek 2019ko otsailaren 13ko ALHAOn (19. zenbakian) argitaratu ziren, eta webgunean (vitoria-gasteiz.org/subvenciones) nahiz herritarren arreta-burlegoetan begiratu daitezke.

13. Diru-laguntzen ordainketa eta justifikatzeko modua

13.1. Diru-laguntzaren ordainketa: diru-laguntzaren zenbatekoa bi ordainketaren bidez ordainduko du udalak:

– Lehenengoa, 2019ko aurrekontuaren kargura, 2019ko irailaren 2tik abenduaren 31ra bitarteko aldirako emandako diru-laguntzaren atalean.

– Bigarrena, 2020ko aurrekontuaren kargura, 2020rako udal-aurrekontuan xede horretarako kreditu egokia eta aski baden kontuan hartuta, betiere, 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 19ra bitarteko aldirako emandako diru-laguntzaren atalean.

13.2. Diru-laguntza justifikatzeko epea: 2019ko irailetik abendura bitarteko aldirako eta 2020ko urtarriletik ekainera bitarteko aldirako emandako diru-laguntzaren justifikazioa batera egingo da, aldi bakarrean. Gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2020ko irailaren 18an amaituko da.

13.3. Diru-laguntzaren justifikaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte elkarte onuradunek:

– Landutako proiektuaren azalpen-memoria (oinarri espezifiko hauekin batera doan 4. eranskina).

Honako hauek jaso beharko dira agiri horretan:

1. Neska-mutilen parte-hartzeari buruzko datuak, eta, hala dagokionean, neskei eta mutilei dagozkienak, generoaren arabera bereizita.

2. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haur eta gazteen kopurua, eta horiei dagozkien begirale laguntzaileak.

– Diruz lagunduko jarduerari dagozkion fakturak, jatorrizkoak, eta faktura eta ordain-agiri horiek laguntzak xede duen helburua betetzeak sortu dituela egiaztatzeke agiriak, bai eta agiri horiek eskuragarri daudela egiaztatzeke agiria ere (oinarri orokorretako 2-J. eranskina).

Prestazioaren hartzailera, faktura horien xedeari dagokiona, IGEa izango da, horixe baita onuradun elkarteak. Hau da, IGEren izenean egingo dira fakturak.

Jarduerak beste bide batetik egiaztatu ezin direnean soilik onartuko dira hartze-agiriak. Hartze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da izan enpresaburua edo profesionala; bestela, hala balitz, dagokion faktura egin eta aurkeztu beharra izango bailuke. Hartze-agiriak honako datu hauek izan behar ditu:

1. Jaulkitzailearen eta hartzailerearen izen-abizenak, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) eta helbidea.

2. Eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira.

3. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari dagokion atxikipena (PFEZ). Ogasunari dagokion atxikipenaren ordainagiria ere erantsiko da.

4. Lekua, data eta hartzailerearen sinadura.

– Diru-sarreraren eta gastuen balantzea (oinarri orokorretako 3-J eranskina).

– Langileen gastuak nominaren bidez eta erakunde edo pertsona onuradunaren konturako Gizarte Segurantzako TC2 agiriaren bidez justifikatuko dira. Nominekin eta TC agiriekin batera, diruz lagundutako jarduerari dagokion gastuari dagokiola adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, denbora eta egotzitako kopuruak ere zehaztuz (oinarri orokorren 4-J eranskina).

– Elkarteak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duenean, horri dagokion zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da (oinarri orokorretako 5-J eranskina).

- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako diru-sarreraren edo diru-laguntzen zehaztapena, zenbatekoa eta jatorria zehaztuz (oinarri orokorretako 5-J eranskina).
- Aplikatu gabeko soberakinik izan bada, zenbateko horren itzulketari dagokion ordainketa-gutuna.
- Publizitate-euskarrien zerrenda eta laginak (liburuxkak, iragarkiak, etabar). Horietan, Gasteizko Udalaren logotipoa agertuko da, erakunde laguntzaile gisa.

14. Elkarte onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradun diren elkarteek honako betebeharrak dituzte:

- Diruz lagundutako jarduerak eragin ditzakeen arriskuen ardura hartzea eta, hala badagokio, aseguru egokia hitzartzea.
- Diruz lagundutako proiektuak irisgarriak diren lokal edo espazioetan egingo dira, abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, xedatzen duenarekin bat etorruta (EHAA, 1997ko abenduaren 24koa); eta, horrez gain, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri-inguruen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzkoak (EHAA, 2000ko ekainaren 12koa), garatutako arau teknikoak bete beharko dira.
- Diruz lagundutako jarduerak eta proiektuak liburuxken, kartelen, buletinaren eta blog elektronikoaren bidez nahiz oro har herritarrei zuzendutako beste edozein euskarriaren bidez zabaltzean, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, euskara eta gaztelania, eta hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzen direla bermatu beharko da. Baldintza hori betetzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da. Betebehar horren jarraipena egingo da, IGE onuradunak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuz.
- Sexu Delitugileen Erregistro Orokorrean deliturik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria: urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, Adingabearen Babes Juridikoarenak, Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea hein batean aldatzen dituenak (haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen 26/2015 Legeak, uztailaren 28koak, aldatu zuen) eta Boluntariotzari buruzko 45/2015 Legeak, urriaren 14koak, hauxe xedatzen dute: normalean adingabeekin egotea eskatzen duten lanbide, ofizio eta ekintzetan sarbidea izateko baldintza izango da epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik zigorrik jaso ez izana. Horretarako, diru-laguntzaren onuradun izan diren erakundeek jarduera horiek gauzatzeko kontratatutako begiraleei zera eskatuko diete: Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiaren ezezko ziurtagiria, Erregistro horrek berak emana. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, ziurtagiri horrez gain, beren nazionalitateari dagokien herrialdeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ezezko ziurtagiri horiek aurkezteko eskatu ahal izango die udalak erakunde onuradunei edozein unetan.

15. Informazioa eta aholkularitza

Deialdi honen esparruan diru-laguntza eskatzeko interesa duten elkarteek informazioa eta aholkua emango die Hezkuntza Zerbitzuak. Argibide-eskaerak 945.161.100 telefono-zenbakiaren bidez egin daitezke (6546 luzapena, Itziar Fernández de Mendiola, edo 6547 luzapena, Apolonia Vicente), edo posta elektronikoko hauen bidez ere egin daitezke: ifmendiola@vitoria-gasteiz.org edo aviciente@vitoria-gasteiz.org.

16. Itzultzea

Jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli behar badira, Kutxabank-eko udal-kontu honetan egingo dira: ES03 2095 0611 03 1090952416; ondoren, diru-sarreraren egiaztapena aurkeztuko dute Hezkuntza Zerbitzuan.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**VITORIA-GASTEIZKO IKASTEETAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEETARAKO
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETARAKO ETA EKINTZA OSAGARRIETARAKO DIRU-
LAGUNTZA DEIALDIA. 2019-2020 IKASTURTEA.**

1.ERANSKINA

ABIZENAK:

IZENA:

NAN:

ELKARTEAREN IZENA:

ELKARTEAN DUEN KARGUA:

IFZ:

TELEFONOA:

HELBIDEA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

EUSKO JAURLARITZAKO ELKARTEEN ERREGISTRO OROKORREAN INSKRIBATUTAKO DATA:

Erantzukizunez **ADIERAZTEN DU**, Vitoria-Gasteizko ikasteetxetako Ikasleen Gurasoen Elkartera (IGEtara) bideratuta dauden diru-laguntzen deialdirako, ordezkatzan duen elkarteak ez duela ekintza berdinetarako diru-laguntzaren eskaerarik egin Udaleko beste Sail edo Zerbitzu batean.

Vitoria-Gasteizen:

(IGEren sinadura eta zigilua)

Sinatu aurretik irakurri arretaz datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa
Antes de firmar lea atentamente la información relativa al tratamiento de los datos personales

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – <i>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz</i> (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	<i>Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek aurkeztutako eskaerak eta bestelako dokumentazioa izapidetzea eta diru-laguntzak ematea 39/2015 Legeari, Dirulaguntzen Lege Orokorrari eta indarrean dauden gainontzeko xedapenei jarraiki.</i> Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada por las Asociaciones de padres y madres de alumnos y alumnas, AMPA, de centros escolares de Vitoria-Gasteiz y tramitar los procedimientos de concesión de subvenciones destinadas a las mismas de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	<i>Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.</i> <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos .</i>
Hartzaileak <i>Personas o entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkiokete –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoel ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

VITORIA-GASTEIZKO IKASTEETAKO GURASOEN ELKARTEETARAKO ESKOLAZ
KANPOKO EKINTZETARAKO ETA EKINTZA OSAGARRIETARAKO DIRU-LAGUNTZA.
2019-2020 IKASTURTEA

2. ERANSKINA

EKINTZAK	PARTE- HARTZAILEEN KOPURUAREN AURREIKUSPENA	MAILA	EKINTZAREN HIZKUNTZA	URTEKO ORDU KOPURUA

Hezkuntza premia dituzten ikasle kopurua:

Behar diren begirale espezifikoak:

jaun-andreak

Ikastetxeko zuzendari eta Ordezkaritza Organo Goreneko (OOG) presidenteak:

- Ziurtatzen du goian zerrendatutako kanpoko ekintzak eta ekintza osagarrien proiektua onartua izan dela OOGean.
- Adierazten du hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez 2018-2019 ikasturtean hezkuntzako laguntzaile espezialisten arreta jaso izan dutela eta kanpoko ekintzak eta ekintza osagarrietan parte hartzeko begirale laguntzaile espezifiko behar izango dutela.

Vitoria-Gasteizen

Zuzendaria

(Sinadura eta zigilua)

Sinatu aurretik irakurri arretaz datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	<i>Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek aurkeztutako eskaerak eta bestelako dokumentazioa izapidetzea eta diru-laguntzak ematea 39/2015 Legeari, Dirulaguntzen Lege Orokorriari eta indarrean dauden gainontzeko xedapenei jarraiki.</i> Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada por las Asociaciones de padres y madres de alumnos y alumnas, AMPA, de centros escolares de Vitoria-Gasteiz y tramitar los procedimientos de concesión de subvenciones destinadas a las mismas de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.
Tratamenduaren legitimazioa edo oianarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	<i>Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du heiburu zehatz bati edo gehiagori begira.</i> <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Personas o entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezetzatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>



CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES Y COMPLEMENTARIAS PARA ASOCIACIONES DE MADRES Y PADRES DE ALUMNOS Y ALUMNAS DE CENTROS ESCOLARES DE VITORIA-GASTEIZ. CURSO 2019-2020.

3. ERANSKINA ORDEZKARITZA EMATEA

ORDEZKARITZA EMATEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK

ERAKUNDEAREN IZENA TELEFONOA
 IFZ
 E-POSTA

ORDEZKARITZA EMATEN DUEN ERAKUNDEAREN LEGEZKO ORDEZKARIA

IZENA
 LEHEN ABIZENA BIGARREN ABIZENA
 NAN TELEFONOA
 ERAKUNDEAN DUEN KARGUA

ORDEZKARITZA ONARTZEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK

ERAKUNDEAREN IZENA TELEFONOA
 IFZ
 E-POSTA

ORDEZKARITZA ONARTZEN DUEN ERAKUNDEAREN LEGEZKO ORDEZKARIA

IZENA
 LEHEN ABIZENA BIGARREN ABIZENA
 NAN TELEFONOA
 ERAKUNDEAN DUEN KARGUA

Prozedura honetan, ordezkari den erakundeak honako ahalmenhauek gauzatu ditzake:

Eskaerak egitea.
 Eskatutako datuak eta agiriak aurkeztea.
 Era guztietako komunikazioak eta jakinarazpenak jasotzea.
 Idazkiak eta alegazioak aurkeztea.
 Eta, orokorrean, prozedura horretan ordezkari dagozkien jardura guztiak egitea.

ORDEZKARITZA ONARTZEA

Idazki hau sinatuta, ordezkari den erakundeak onartu egiten du emandako ordezkari eta ordezkari eman duen pertsonaren sinadura benetakoa dela aitortzen du.

APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 5. artikulua.

Vitoria-Gasteizen

Ordezkatua

Ordezkaria

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek aurkeztutako eskaerak eta bestelako dokumentazioa izapidetzea eta diru-laguntzak ematea 39/2015 Legeari, Dirulaguntzen Lege Orokorriari eta indarrean dauden gainontzeko xedapenei jarraiki. Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada por las Asociaciones de padres y madres de alumnos y alumnas, AMPA, de centros escolares de Vitoria-Gasteiz y tramitar los procedimientos de concesión de subvenciones destinadas a las mismas de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: <i>Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.</i> Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: <i>La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Personas o entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunikatu dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horietatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>



VITORIA-GASTEIZKO IKASTEETAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEETARAKO ESKOLAZ
KANPOKO EKINTZETARAKO ETA EKINTZA OSAGARRIETARAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA.
2019-2020 IKASTURTEA.

4.ERANSKINA

<input type="text"/>	jaun/andreak
<input type="text"/>	GE presidenteak
<input type="text"/>	Ikastetxea

Telefonoa:

IFZ:

Vitoria-Gasteizko udalak emandako euroko diru-laguntzarekin egindako kanpoko ekintzak eta ekintza osagarrien memoria aurkezten du.

EGINDAKO EKINTZEN MEMORIA:

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN ETA BEGIRALE LAGUNTZAILEA DUTEN UMEEN ZERRENDA

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN NESKA-MUTIKOEN ZERRENDA	IKASTURTEAN PARTE HARTU DUEN EKINTZAREN IZENA	DAGOKION BEGIRALE LAGUNTZAILEAREN IZEN-ABIZENAK

Vitoria-Gasteizen

(Sinadura eta zigilua)

Presidentea

Zigilua

Diruzaina

Sinatu aurretik irakurri arretaz datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkariaren kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	<i>Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek aurkeztutako eskaerak eta bestelako dokumentazioa izapidetzea eta diru-laguntzak ematea 39/2015 Legeari, Dirulaguntzen Lege Orokorriari eta indarrean dauden gainontzeko xedapenei jarraiki.</i> Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada por las Asociaciones de padres y madres de alumnos y alumnas, AMPA, de centros escolares de Vitoria-Gasteiz y tramitar los procedimientos de concesión de subvenciones destinadas a las mismas de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.
Tratamenduaren legitimazioa edo oianarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	<i>Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.</i> <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Personas o entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezetzatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>